



ILEAN MARRA BATI  
BEGIRATU



Laborategiko sagutxoak  
lehen testutik abiatuta  
sorturiko marrazkia.



Asko poztu nintzen Alazne Zubizarretak La Taller gunean egingo duen erakusketarako testu bat idazteko eskatu zidanean, horrelako egoerek gertuko artisten praktika askoz hobeto ezagutzeko aukera ematen baitidate, eta, beraz, segituan jarri ginen materiala ikusten eta komentatzen, lanean hasteko. Lehen topaketa horietako batean, prozesuan zeuden grabatuak erakusten zituen bitartean eta marrazten sentitu ohi dituen zenbait zailtasunei buruz ari zela, ariketa bat egitea bururatu zitzaidan. Ariketa honetan, berak sorturiko irudi bat ahalik eta modu sakon eta zehatzenean deskribatu beharko nuke, testu bat sortze aldera. Asmoa Alazneri testu hori berriro pasatzea zen, hark berriz ere irakurritakoa marraz zezan, itzulpenean emandako aldaketa edo saltoak ikusi ahal izateko.

Ahalik eta zorrotzera izan nahi nuen, deskribapenaren mugetaraino iritsi, non behaturiko irudiaren eta neroni buruzko egi absolutuak agertuko ziren, neure usteen aurka joanda ere (printzipioz ez baitut sinesten testu idatzira itzulitako irudi baten egiazkotasunean, ezta alderantziz ere).

Hiru testu sortu nituen: horietako bi Alazneren bi grabatutatik abiatzen ziren, eta azken bat berak miresten duen erromantizismoko artista grabatzaile baten lanetik, John Martin grabatzailearen lanetik, hain zuzen. Ariketa ez zen guztiz ondo irten, ordea: Alazneren irudietatik abiatutako bi testuak luzeegiak ziren eta oso zaila zen pazientzia galdu eta marrazkilaria gogaitu gabe hitzok irudian erreproduzitzea. Laborategiko

sagutxo bati eskatu nion bi testu horiek marrazki banatan erreproduzitzeko, eta jatorrizko grabatura hurbiltzeko balio ez zutela egiaztatu genuen, behatzailearen begiradak testuan eskainitako luzerak, zehaztugabetasunak eta desbideratzeak ezinezkoa egiten baitzuten iturbururako bidea egitea —nahiz eta oso objektiboa izaten saiatu nintzen—.

Dena den, saiakera trakets hauen bidez zenbait gauza agerian geratu zirela esan genezake: batetik, begiratutako zerbaiten testu-bidezko deskribapen mota batek sor dezakeen higuina, eta, bestetik, oso deskriptiboa izateko nahia duen testua abiapuntu duen iruditik zein urrun egon daitekeenaren egiaztapena. Testua eta irudia elkarrengandik geroz eta aldenduago zeuden, eta horrek Vila-Matasen aipu hau ekarri zidan gogora:

(...) gorrotatzen genituen errealista eta rustikoa edo rustikoa eta errealista, idazlearen zeregina errealitatea erreproduzitzea, kopiaetzea, imitatzea zela uste zutelako, bere bilakaera kaotiko eta konplexutasun ikaragarrian errealitatea eskuragarria eta kontagarria bailitzan; zur eta lur gelditzen ginen, zenbat eta enpiriko eta prosaikoagoak izanda, egiatik gertuago zeudela uste zuten idazleen aurrean, izatez, xehetasunak pilatu ahala, orduan eta gehiago urruntzen baitziren errealitatetik (...) (1)

Ikusten nuenaren irudi sinesgarri bat emateko ahalegina egiten nuen paragrafo bakoitzarekin, gehiegizko deskribapenekin eta hitz jario luzez. Honek zera erakutsi zidan: behaketa luze batean ikusten nuena begi-kolpe batekin soma nezakeena baino askoz sakonagoa zen arren, hitz askorekin deskribatzeak marrazkilariaren begiradak egiten duen sintesi lanetik urruntzen ninduela. Marrazkilari on bat ez da begietatik sartzen zaionaren lerro denak marrazten dituen, begirada pausatu eta momentu horretan paperean kokatzeko garrantzitsuena aukeratzen dakiena baizik. Hori bera izan beharko litzateke testu on bat nire ustetan, momentu hartan egiten ari ez nintzen zerbait, alegia.

Errealitatearen imitazioaren baitan koka genezakeen arazo hau, hau da, mimesiarena, Alazne eta biok izandako elkarrizketaren gai nagusienetako bat izan da. Trebetasun handia izan omen du gaztetatik errealitatea modu errealistan edo hiperrealistan erreplikatzeko —edo, hobeto esanda, errealismo eta hiperrealismoaren kanonak erreplikatzeko—. Trebetasun hau, nolabait saritua izan zaion heinean, beste bide batzuen

aztertzea zaildu egin du. Beretzako gaitasun mimetiko hau ez da interesgarria dena artista batean, baizik eta kanon hauek pentsatu gabe erreplikatzera eramaten gaituen automatismotik askatzeko gai izatea. Izan ere, eta azaltzen duenez, konbentzioak ez errepikatzeko patroia hauetatik irtetea da korapilatsuena, eta horretarako gelditu eta pentsatu egin behar da. Alazneri marrazkiari buruz interesatzen zaion deskribapenetako bat, hortaz, pentsatzeko modu ezberdin bat dela izango litzateke, pentsamendua eskuaren bidez luzatu eta, bere kasuan, hitzez baino modu zehatzagoan kondentsatu eta antolatzeke modua, hain zuzen.

La Taller-en aurkezten dituen grabatu berrien konposaketari dagokionez, 2022an Ertibilen edota 2020an BilboArten erakutsitakoekiko zenbait aldaketa soma ditzakegu. Lasaiagoak dirudite, lehen begirada batean informazio gutxiago daukatela, bitarteko espazio eta presentzia materikodun multzo gehiagorekin, baina bere iruditeriaren hainbeste forma ikoniko erabili gabe. Beti orekatuak eta neurritsuak, formez hutsagoak diren paisaiak eskaintzen dituzte, zertxobait abstraktuagoak, baina Alazneren imajinarioaren sinbolo ezagun batzuk galdu gabe. Berak dio forma ezaguterrazetatik aldendu nahiko lukeela, batez ere inork marraztu ez baditu ere segituan edonon ikusten ditugun aurpegitxo horietatik aldendu nahiko lukeela, euskal arte grafikoan ohikoagoak diren forma sintetikoen abstrakzio hutsera iritsi gabe.

Grabatu kalkografiko berri hauek Solokoetxe eta Tokioren artean egin dira, Ertibilen jaso zuen sariari esker uda honetan Alaznek egoitza artistiko bat burutu duelako Japonian. Ohikoa baino zailagoa izan da grabatu hauek aurrera ateratzea han ez zituen material eta prozeduretatik eratorritako konplikazioen ondorioz. Ez zeukaten erretxin-hautsa aplikatzeko ganberarik, ezta hura birrintzeko errotatxorik ere, hortaz grabatuaren prozesu garrantzitsu batzuk manualki eta era ezegonkorrean egin behar izan ditu. Horregatik, bidaiatik itzuliaz bat akatsak, orbanak eta soilguneak konpontzeari ekin dio. Eta, hain zuzen ere, egoera horrek berak bultzatu du aspaldian egiten ez zuen zerbaiti aurre egitera: paper gaineko zuzeneko marrazkia. Beraz, erakusketa honetan bi lan ezberdin ikusiko ditugu: batetik, grabatuak, kontrolatuagoak, prozesu nekezago eta luzeagoen bidez egituratuak; eta, bestetik, marrazkiak, zuzenagoak, askeagoak. Japonian gertatutako arazo teknikoan aurrean izandako erantzun askatzailea izan dira marrazki hauek. Horietan, grabatu-prozesuan bereizten diren pausu guztiak aldi berean eman izan ahal ditu, kaligrafiazko paper artisauro eta

finak oinarri gisa erabiliz. Hau dela eta, marrazki konplexuagoak ikusiko ditugu, zikinagoak agian, grabatuek baino askoz informazio gehiago metatzen dutenak. Denetik sartu du bertan: spray teknikak, txantiloiak, rotulkia eta grafitoa bezalako material nahasketak, aztarnak, orbanak hala nola zuzenean itsatsitako irudiak. Marrazki hauetan *makarrismo* apur bat ikus daitekeela esan genezake, sekula bere lana deskribatzeko erabilia izan den hitza, eta orain arte grabatuetan erakutsi duen kontrol eta zehaztasun tekniko dela eta Alazneren lana deskribatzeko ezegokia ikusten genuena.

“Grafika hedatuaren” kontzeptuaz oroitzen gara ezinbestean prozedura-nahasketa eta diziplina-hedapen honen aurrean. Bai Alazneren lana eta baita La Taller-en jazotako erakusketa ezberdinak deskribatzeko erabilia izan da, Maite Martinez de Arenazak alor horretatik aukeratzen baititu gonbidatuak. Hala ere, kontzeptu horrekiko bi artisten begirada oso bestelakoa da; nahiz eta Maitek grabatua pentsamendu artistiko garaikide batetik ulertzeko ibilbide-orri gisa erabiltzen duen, eta ideologikoki grabatu klasikoaren purismo teknikoari darizkion usain batzuen kontra kokatzeko, Alazne ez da “grafika hedatuaren” kontzeptuarekin hain eroso sentitzen eta grabatuarena nahiago du, baita “grabatzaile” bezala identifikatu ere, berak marrazkilaria dela esan ohi duen arren. Niretzat oso argigarria izan da Maitek zioena gai honen inguruan, bi kontzeptu hauek bereiziz: bata, grabatu klasiko eta bestea, grafika hedatua. Grabatuak teknika klasikoetan du jatorria. Teknika bera prozesuaren azken mugatzat hartzea mugatzailea izan daiteke, “izan ere, gustua klasikotasunean eta jatorrizko tekniketan oinarrituta dakarrenak teknika horien katalogo bat besterik ezin izango du sortu, eta hori ez da proiektu artistiko bat egitea, hori ez da poema bat eratzea” (2). Jarrera artistiko horren alde, behin lehiaketa batean murtxikaturiko marrubi txikle bat saritu zeneko esperientzia adierazgarri bati buruz hitz egin zigun Maitek, eta bertan matrize bat (hortzeria), matrize horren informazioaren iraulketa bat (hozkadaren bidez) eta euskarri batean aztarna bat (txiklean geratzen dena) zeudela azaldu zigun. Beraz, lan hau gaur egun grabatuaren hedatzeak suposatzen duenaren adibide paregabea zitekeen, baita artetik pentsatzeko moduarena ere, non diziplinarena den horrek ez lukeen praktika bera mugatu behar. Horregatik, eta Alazneren lana grafika hedatuaren kontzeptuan integratuta ikus badezakegu, ez da horrenbeste marraztu, grabatu eta tatuatzen duelako, baizik eta guzti horrek bilaketa artistiko berberari erantzuten diolako. Matrizearekiko interes bat aurkitzen dugu (hilabete honetan bertan Anti Liburudendan “Ácido, etc.”

erakusketaren baitan berauek erakustean argi ikus dezakegun bezala), eta aztarnarekiko interes bat ere bai, urratua, marrazketa-materialetan zauria. Beharbada, Alaznek ez luke bere lana *grafikaren* baitan kokatuko latinezko etimologian trebea denarekin, perfektuarekin eta akaberarekin zerikusia duelako. *Grabatuak*, berriz, beste kontzeptu batzuekin egiten du topo: zulatzea, seinalatzea, lantzea; alegia, lurtarragoa den zerbaitekin. Poetikora ere igortzen gaitu etimologiak, *graver* grabatuaren erreferentzia frantsesak “ilean marra bat egin” esan nahi zuela esaten digunean(3).

Natalia Vegas. 2023ko Iraila.

## BIBLIOGRAFIA

- (1) VILA-MATAS, Enrique. Kassel no invita a la lógica, Penguin Radom House Grupo Editorial SAU, Bartzelona, 2021, 190. or.
- (2) Alazne Zubizarretari eta Maite Martínez de Arenazari egindako elkarrizketa La Taller gunean, Bilbon, 2023ko irailaren 8an.
- (3) DECEL. Gaztelaniazko etimologia-hiztegia linean <https://etimologias.dechile.net/>? Grabar

